

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

160 profesional arituko dira desgaitasuna duten pertsonak artatzeko jardunbide egokien adibideak partekatzen

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak bi jardunaldi antolatu ditu laguntza-zentroetako kalitatea partekatzeko

Osteguna, 2018.eko maiatzak 10

Ostegun honetan, 160 profesional arituko dira desgaitasuna duten pertsonak artatzeko jardunbide egokiak partekatzen, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak antolatutako bi jardunalditan.

Segidako bi ostegunetan, zentro ezberdinetan (egoitzak eta tutoretzapeko etxebizitzak), desgaitasun fisikoa eta intelektuala duten Nafarroako pertsonentzat burutzen diren jardunbide egokien berri emango dute profesionalak, horietan lan egiten duten pertsonen artean esperientziak eta ezagutza trukatuaz, eta, aldi berean, arretaren kalitatea hobetzeko bidean aurrera egin ahal izateko topaketa-gunea erraztuaz.

Deialdia bi egun ezberdinetan egin da, [eduki](#) berarekin, ahalik eta profesional-kopuru handienak parte har dezan.

Bertan, ondorengo laguntza-zentroek hartuko dute parte: San José, Las Hayas, Valle de Roncal, Oncineda, La Atalaya, Ramón y Cajal (Aspace), Carmen Aldave (Aspace), Infanta Elena eta Adacen eta Lur Gorri eta Anfas Barañain-go etxebizitzek.

Bi saioak desgaitasunaren artapenerako Las Hayas zentroan garatuko dira, Sarrigurenen, eta 160 profesional baino gehiagok parte hartuko dute. Helburua da laguntzaren alderdi ezberdinetan praktika eraginkorrak erakustea: herritar aktiboak eta autonomia soziala gizarteratzeko urratsa bezala, ariketa fisikoa eta zahartzea, garbiketalanak hobetzeko sistemak edo jokabide-laguntza positiborako teknikak, besteak beste.

Saioak goizeko 9:00etan hasiko dira. Hilaren 10ean, ANADPEko balorazio eta zerbitzuetako zuzendariorde Carmen Maeztuk egingo du sarrera, eta hilaren 17an, Ines Frances zuzendari kudeatzaileak. Zentro bakoitzeko arduradunek 20 minutuko tarte izango dute haien azalpena emateko, eta jardunaldiaren amaieran eztabaidarako aukera izango da; moderatzaile-lanetan Rosario Larumbe arituko da, ANADPEko desgaitasunaren ataleko bulego-burua.